

ASTIGARRAGAko TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA 2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK



Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: ELKARREKIN 21



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua




Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiro) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goimailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.


24 urte beranduago, esanguratsua da Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.

2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:

Aduna, Alkiza, Arama, Amezketeta, Andoain, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena (eskualde mailako ekintza-plana), Donostia, Hondarribia, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Oresa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.




Nolakoa da gure udalerriko ekintza-plana?



Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz, **baxuagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikaturik** dauden eragile-kopurua, berriz, lurraldeko batez bestekoaren **parekoa** da.




Nolako izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

%32a ezarri da bere 3. urtean

%9ko hazkúndea 2014 -2015 epealdian

Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila **baxuagoa** da **desiragarria** den **helburuko** balioarekiko, baina urte horretan lurraldeko **batez besteko balioaren parekoa** da.




Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?

Ekintza-plana modu egokian garatuz doa, 3. urtea bete dutenen tankera hartuz: *Amaituta*, *Amaitzen* eta *Aurreratuta* egoeran aurkitzen diren ekintzak %38a suposatzen dute, *Hasteko* daudenen (%27) gaineratik.

Hasitako ekintzak planaren herena (%35) suposatzen dute. Hauen eboluzioa nolakoa den esanguratsua izango da datorren urteko emaitzetarako.

TEPren ezarpen-maila 2015 (%)



2015ean amaitutako ekintza adierazgarri batzuk:


- 3.1.2 Energia kontsumoa optimizatuko duen Energiaren Ekintza-plan bat egin.
- 3.4.1 Gaikako bilketaren kontrola, jarraipena eta lortutako datuen azterketa egin.
- 3.4.4 Industria-guneko hondakinak Udalak biltzea aztertu.
- 4.1.1 Astigarragako garapen ekonomikoa eta enplegu gaiak jorratzeaz arduratuko den ordezkari bat izendatu

2015ean hasitako ekintza adierazgarri batzuk:

- 1.1.4 Obretan udalerrriaren eta ingurunearen berezko estetika errespetatu.
- 2.1.2 Lotura ekologikoko tokiak eta korridoreak zaindu.
- 3.1.5 Udalerriko zerbitzu guztientzako eta enpresa publikoentzako energiaren kudeaketa zentralizaturako software bat ezarri, kontsumoen kontrola eta kontabilitate energetikoa baimenduko duena.
- 3.2.1 Egindako plangintza energetikoan proposatutako energia eraginkortasun hobekuntzen ekintzak gauzatu.
- 3.7.1 Udal sail guztien elkarlanean EKPBren arloan estrategia bat diseinatu, ezarri eta jarraipena egin.

Ildo estrategikoen arabera ezarpen-maila

Ezarpen-maila %



2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

Hizkuntza-politika integrala garatu eta herritarren eta udalaren arteko harremana hobetu: %28ko ezarpen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Euskararen barne zein kanpo erabilera sustatzea
- Udala eta herritarren arteko komunikazioa hobetu eta parte-hartze aktiboa sustatzea
- Barne koordinazioa hobetu eta udal politiken zeharkakotasunean oinarritutako kudeaketa sustatzea

Udalerriko garapen ekonomikoa sustatu, enpleguaren sorreran eta ekintzailertzan oinarrituz: %30eko garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Astigarragan garapen ekonomiko jasangarri bat lortzeko bitartekoak jartzea
- Ekintzailertza sustatu eta lan aukera berriak sortzea

Energia eta hondakinen kudeaketa eraginkorra sustatu udalerrian eta udalean eta zentzuzko kontsumoa bultzatu: %30eko ezarpen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Udal energia kudeaketa eta plangintza hobetu erabilera ahalik eta eraginkorrena sustatuz
- Udal ekipamenduetan eta argiteria publikoan energia eraginkortasuna sustatu
- Udal ekipamenduetan energia berriztagarrien erabilpena sustatu
- Hondakinen kudeaketa sistemaren jarraipena egin eta hobetu
- Hondakinen sorreraren prebentzioa bultzatu
- Udal ekipamendu eta udalerrri osoaren ur kontsumoa murriztu
- Udal mailan Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako estrategia bat garatu

Partaidetza TA21en baitan

EZ DAGO BEREZKO
PARTE-HARTZEKO
MEKANISMORIK:
HERRITARRENTZAKO
BILERA IREKIAK
EGITEN DIRA

AGENDA 21EN
FOROAREN
BILERARIK EZ DA
IZAN 2015EAN

PARTAIDETZA
PROZESUETAN
UDAL-ORDEZKARIEK
ETA HERRITARREK
HARTZEN DUTE
PARTE.

LANDU DIREN GAI
NAGUSIAK AUZOETARA
ERAMATEN DIREN
UDAL-GAIAK DIRA:
BERDINTASUNA ETA
AURREKONTU
ARLOKOAK

Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu
 (www.astigarraga.eus udal-web gunean eskuragarri)

The screenshot shows the homepage of the Astigarraga town website. At the top left is the logo for 'ASTIGARRAGAKo Udala', featuring a green shield with a tree and a sun. To the right of the logo are social media icons for Twitter, Facebook, and YouTube, followed by the text 'harremanetarako eu | es'. Below this is a search bar with the placeholder text 'Bilatu...' and a magnifying glass icon. A navigation menu contains the following items: 'ASTIGARRAGA EZAGUTU', 'UDALA', 'ZURE ZERBITZURA', 'AKTUALITATEA', and 'HARREMANETARAKO'. The main content area features a large photograph of a residential street in Astigarraga. Overlaid on the bottom right of the photo is a green box with the text 'Astigarraga gure herria'. Below the photo are four colored buttons: a green button labeled 'Zerbitzu telematikoak', a blue button labeled 'Kontratzailearen Profila', a pink button labeled 'Turismoa', and an olive green button labeled 'Gardentasuna'.